

FAUSTO AROZENA

(1896-1980)

Bizitzan zehar izan zuen apaltasun berean joan zitzaigun Fausto Arozena Arre-
gi jauna 1980.eko Abenduaren 16an, Donostian. Gure historiari zerbait arduratu
direnak ohartuko dira gizon apal eta jakitun honen galerez...

Fausto, Donostian bertan sortua zen 1896.eko Uztailaren 15ean. Gaztarotik
historia ikerketari emana zen. Euskaraz ere zerbait idatzi zuen. Ez askorik. 1920.
urtearen inguruan hasi eta *Junior*-en zenbait kolaborazio, batez ere poesiaz; baina,
baita ere, Eusko-Ikaskuntzaren *deia* eta *Egan*-en argitara eman zituen euskarazko
zenbait lan: Urte berri poema eta “Universidade edo irakaskuntza orokorra” eta
abar. Hala ere, haren lan nagusiak erdarazkoak dira, bereziki historia gaiaz zenbait
liburu eta aldizkaritan barreiatuak.

Idatzez aparte, Gipuzkoako Diputazioko artxiboaren arduradun izan zen eta
beraren herrienganako maitasunez, urterik larrietan ere, lanik anitz egin zuen era-
rik isilenean. Hala ere, ekintzarik aipagarrienen artekoak ditugu Julio Urkiko hil
zenez hark utzitako biblioteca aberatsa Gipuzkoako Diputazioak erostea, Protoko-
lo artxiboa antolatzea, eta abar. Baina, gizaldi berrientzat harrigarria bada ere,
gerraondoan Diputazioko Bibliotekan “garbiketa” bat egin nahi zutenean, gorrienak
edo abertzaleenak ziren guziak erreaz, F. Arozena gogor jarri zen holakorik egin ez
zetzaten, Bibliotekak liburu gordailu izan behar dutela eta ez erretzeko leku.

Eusko Ikaskuntza sortzean, 1919. urtean, bertako idazkaritza lanetan sartu zen.
Berak aitortzen zuenez, maisurik hoberena Serapio Mujika izan zuen. Hura hiltzeaz
haren kargura pasatu zen, Gipuzkoako Diputazioaren gordailu arduradun.

Historia ikerketaz aldizkari askotan idatzi zuen, bereziki *RIEV* eta *Bol. de la R. S. V. de los Amigos del País*-en. Hala ere, lanik garrantzitsuenak haren liburuetan
biltzen dira: *Narraciones Folkloricas* (1924), *Doña Blanca Garcés* (1925), *Reseña
histórica de Rentería* (1930) S. Mujikarekin elkarlanean egina, *Guía de Guipuzcoa*
(1930) S. Mujikaren laguntzaz, *Guipuzcoa por San Ignacio* (1950), Bachiller Zaldi-
biaren *Suma de las cosas Cantábricas y Guipuzcoanas* edizio kritikoa (1944), *La
casa de Zumalacárregui* (1948) J. Yrizarrekin elkarlanean, *Protocolos guipuzcoanos*,
Indice (1948), *El País Vasco visto desde fuera* (1949), *Brumas de nuestra historia*
(1950), *Problemas históricos guipuzcoanos en la vida de San Ignacio* (1946), *Gari-
bay* (1960), *Nuestra pequeña historia* (1961), *Diccionario biográfico vasco. Guipúz-
coa* (1963), *Guipuzcoa en la historia* (1964).

Borondate oneko gizona zen eta ikerketarako galdezka joatzen zitzaizkiotenei
beti laguntzeko prest. Historia kontuko edozein galderari erantzuten liburu idekia
bezala zen, xehetasunik tipiena adieraziz eta parterik korapilotsuenak ere argi ta gar-
bi agertuz. Haren burua, gordailu aberatsa zen eta beti nornahirentzat idekirik.

Geroko urteetan ere, Gipuzkoako historia aztertu nahi dutenek, haren lanetara
jo beharko dute iturririk gardenen bila. Eta, zordun garenok, inoiz ez gara ahaztuko.

J. S. M.